FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES NAGUSILAN

nagusilan

ADIN NAGUSIKOEN GIZA BOLUNTARIOTZA
VOLUNTARIADO SOCIAL DE MAYORES

BOLETÍN DE NAGUSILAN

Número 146 • JULIO 2019
Depósito legal D.L./L.G. SS-1120/01

# El programa "Nagusilan Ikasten" da sus primeros pasos

nagusilan IKASTEN FORMACIÓN

# "Nagusilan Ikasten" programak lehen pausoak eman ditu

pág. 4-5

Celebración de la Asamblea General Ordinaria de Nagusilan Gipuzkoa 2019
*2019ko Nagusilan Gipuzkoaren Ohiko Batzar Orokorraren ospakizuna*
pág. 2-3

Excursión de fin de curso a Leitza
*Kurtso amaierako txangoa Leitzara*
pág. 8-9

Vuelta por Donostia con la iniciativa "En bici sin edad"
*Donostian barrena "Bizikletaz adinik ez" ekimanerakin*
pág. 14-15





**FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE ASOCIACIONES NAGUSILAN**
**Tel.: 943 47 50 21**
Resurrección M.ª de Azkue, 32 behea
20018 Donostia-San Sebastián
e-mail: info@nagusilan.org
**www.nagusilan.org**
@nagusilan

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE SANIDAD, CONSUMO Y BIENESTAR SOCIAL
SECRETARÍA DE ESTADO DE SERVICIOS SOCIALES
IMSERSO



# Celebración de la Asamblea General Ordinaria de Nagusilan Gipuzkoa 2019

**Se aprobó el proceso de Actualización de los Estatutos y la elaboración de un nuevo reglamento interno**

El 29 de mayo se celebró la Asamblea General Ordinaria, en el Salón de Actos de Colegio de Médicos, donde asistieron 81 voluntarios más 67 representados.

Una vez constituida la Asamblea se procedió a desarrollar el Orden del Día. Asimismo, José Luis Elosua, Presidente de Nagusilan, dio la bienvenida a las personas que acudieron así como, a nuestros voluntarios de Nagusilan Madrid y a voluntarios de Bortziria (Lesaka y Bera), para a continuación proceder a la lectura y aprobación, del acta de la Asamblea celebrada el 11 de enero de 2019, por parte de Jesus Mari Zaldua, Secretario de la Asociación.

## Hechos relevantes del 2018

A continuación, se procedió a exponer los hechos relevantes del ejercicio anterior y la memoria de 2018. Nagusilan Gipuzkoa cuenta con 844 personas voluntarias repartidas en 27 delegaciones, en este sentido, se ha comenzado a realizar un análisis estadístico del voluntariado donde se ve una feminización del voluntariado de Nagusilan; cada persona voluntaria ha invertido una media de 171 horas de voluntariado, dando un total de 145.821 horas; más de 5.000 personas mayores han sido acompañadas en residencias, centros de día y domicilios, en coordinación con los servicios sociales de base y centros; 18 personas voluntarias conforman el "Hilo de Plata" atendiendo a alrededor de 100 personas. Para la visibilización del proyecto se han realizado tarjetas específicas; son numerosas las actividades de animación que se llevan a cabo en la asociación; también se realizan charlas sobre temas diversos; en Legazpia se han llevado a cabo sesiones audiovisuales; se ha colaborado activamente con otras asociaciones; se han llevado a cabo proyectos intergeneracionales; se ha participado en proyectos, jornadas, congresos, charlas y reuniones sobre participación y Gobernanza. Asimismo, se dio cuenta del balance de la campaña "Fórmula Nagusilan" y su impacto.

También se presentó, un cuadro con los resultados económicos consolidados de Nagusilan referidos a los tres últimos años de 2016, 2017 y 2018.

La asamblea finalizó con la música del grupo de animación de Nagusilan.



# *2019ko Nagusilan Gipuzkoaren Ohiko Batzar Orokorraren ospakizuna*

***Estatutuen berrikuntza prozesua eta barne araudi bat egitea onartu zen***

*Maiatzaren 29an Ohiko Batzar Orokorra ospatu zen Medikuen Elkargoan. Bertara 81 boluntario etorri ziren eta 67 ordezkatuak.*

*Batzarra eratu ostean, gai-zerrenda garatzeari ekin zitzaion. Jose Luis Elosua, Nagusilaneko Presidenteak, ongietorria eman zien bertaratu ziren pertsona guztiei eta baita Nagusilan Madrildik eta Bortziriatik (Lesaka eta Bera) etorritako pertsona boluntarioei ere. Ondoren, 2019ko urtarrilaren 11n ospaturiko Batzarraren akta irakurri zuen Jesus Mari Zaldua, Nagusilaneko Idazkariak, eta aho batez onartu.*



## *2018ko gai nagusiak*

*Jarraian, aurreko urteko gai garrantzitsuen berri eman zen 2018ko memoriarekin batera. Nagusilan Gipuzkoak 844 pertsona boluntario dauzka 27 delegaziotan banatuta, honen inguruan, analisi estatistiko bat jarri da martxan non Nagusilanen boluntariotzan emakumearen indarra areagotzen ari dela nabarmentzen den; pertsona boluntario bakoitzak 171 ordu eman ditu boluntariotza lanetan, guztira 145.821 ordu izanik; 5.000 pertsona nagusi baino gehiago izan dira artatuak erresidentzia, eguneko zentro eta etxeetan, gizarte zerbitzuetako oinarrizko zerbitzuekin eta zentroekin koordinatuz; 18 boluntariok osatzen dute "Zilarrezko Zenbakia" taldea ia 100 pertsona artatuz. Proiektua ezagutzera emateko tarjeta batzuk egin dira; animazio aktibitate ugari eramaten dira Elkarteko boluntarioen aldetik; hitzaldiak ere eskaini dira; Legazpin ikus-entzunezko saioak egin dira; beste elkarte batzuekin hartu-eman zuzena izan du Nagusilanek; belaunaldiarteko proiektu eraman dira aurrera; parte hartzeari eta gobernantzari buruzko proiektu, jardunaldi, kongresu, hitzaldi eta bileretan parte hartu da. Gainera, "Nagusilan Formula" kanpainaren balantzea eta edukitako oihartzunaren berri eman zen.*

*Horrez gain, 2016, 2017 eta 2018ko Nagusilanen koadro ekonomikoak erakutsi ziren, urte horietan edukitako emaitzekin.*

*Batzarrari Nagusilaneko animazio taldeak eman zion bukaera bere musikarekin.*











# Nagusilan estrecha lazos con la asociación Elkarrizan

El día 3 de abril, representantes de la Asociación Elkarrizan del norte de navarra se reunieron con personas voluntarias de Nagusilan para conocerse y ver las líneas de colaboración entre las dos asociaciones.

### La Asociación Elkarrizan ¿quiénes son?

La Asociación Elkarrizan nació en el año 2008 en Bera y rápidamente fue la Mancomunidad de Servicios Sociales de Bortziriak la que comenzó a gestionar el grupo. En el año 2012 el servicio se amplió a Lesaka y en la actualidad cuenta con 42 personas voluntarias, 11 de ellas en Lesaka. El objetivo principal es "ofrecer ayuda y acompañamiento a la persona que lo necesite, dar un poco de calidez y cercanía, un poco de humanidad". Aunque en un principio el servicio iba dirigido a personas mayores y discapacitadas, en la actualidad el perfil se ha ampliado y ofertan clases de castellano y apoyo escolar para inmigrantes y personas con dificultades, así como servicio de transporte.

### Nuevos pasos

Desde entonces han participado en varios cursos, la animación también acude a sus residencias y han participado en la Asamblea.

# *Nagusilan eta Elkarrizan Elkarteak geroz eta gertuago*



*Apirilaren 3an, nafarroa iparraldeko Elkarrizan Elkarteko ordezkariak Nagusilaneko pertsona boluntarioekin Bildu ziren elkar ezagutu eta bi elkarteen arteko kolaborazioa nola indartu daitekeen ikusteko.*

### *Elkarrizan Elkartea, zein dira?*

*Elkarrizan Elkartea 2008. urtean sortu zen Beran eta laster Bortziriako lehen Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea izan zen, talde bat kudeatuz. 2012an zerbitzua Lesakara zabaldu zen eta egun 42 pertsona boluntario dauzka, horietatik 11 Lesakan. Helburu nagusia "behar duten pertsonei laguntza eta gertutasuna, goxotasuna eta gizatasuna eskaintzea da". Hasiera batean zerbitzua edadeko pertsona eta ezinduei zuzendua zegoen arren, gaur egun gaztelera ikastaroak eta eskolarako laguntza eskaintzen diete atzerritarrei eta zailtasunak dituzten pertsonei, eta baita garraio zerbitzua ere.*

### *Pauso berriak*

*Bilera egin zenetik hainbat ikastarotan parte hartu dute, animazioa euren erresidentzietara mugitzen da eta Batzarrean parte hartu dute.*



# Nagusilan ha firmado dos convenios de colaboración con Hurkoa y el hospital Aita Menni

# Nagusilanek bi kolaborazio hitzarmen sinatu ditu Hurkoa eta Aita Menni ospitalearekin



### Convenio con Hurkoa - *Hurkoarekin hitzarmena*

Nagusilan y Hurkoa han firmado un convenio de colaboración para reforzar la red de voluntarios debido a la creciente demanda asistencial que existe en el territorio.

En virtud del convenio, Hurkoa definirá las demandas que requieren de voluntariado y precisará el número de personas que deben ser atendidas, así como el perfil de cada usuario, tras lo cual la designación de los voluntarios de Nagusilan se llevará a cabo mediante un protocolo organizativo entre ambas entidades. Asimismo, los voluntarios de Nagusilan podrán asistir a las formaciones de Hurkoa así como en reuniones zonales para analizar y mejorar los servicios de apoyo.

*Nagusilan eta Hurkoak boluntariotza sarea indartzeko hitzarmena sinatu dute probintzian gorakada izaten ari den asistentzia eskaeraren ondorioz.*

*Hitzarmenaren ondorioz, Hurkoak behar dituen boluntariotza beharrak definituko ditu eta artatuak izan behar duten pertsona kopurua zehaztuko du, erabiltzaile bakoitzaren perfilarekin batera; ondoren, Nagusilaneko boluntarioen izendapena burutuko da bi entitateen arteko antolakuntza protokolo baten bitartez. Horrez gain, Nagusilaneko boluntarioak Hurkoak eskaintzen dituen formakuntzetara joan ahal izango dute eta baita eskualdeka egiten dituzten bileretara ere laguntza zerbitzuak hobetzeko helburuarekin.*

### Convenio con el Hospital Aita Menni - *Aita Menni Ospitalearekin hitzarmena*



Nagusilan también ha firmado un convenio de colaboración con el Hospital Aita Menni, mediante el cual se formaliza esta colaboración activa de ambas entidades.

Las personas usuarias de los diferentes centros que Aita Menni tiene repartidos por la geografía vasca vienen realizando desde hace años labores de voluntariado en diferentes iniciativas de Nagusilan, y los propios voluntarios de Nagusilan participan y acompañan en actividades de Aita Menni. Ahora, se oficializa y se regula una estrecha colaboración que ambas entidades vienen prestando desde hace años desde algunos centros de Aita Menni y que ahora se extiende a toda la red de centros de Aita Menni.

*Nagusilanek ere hitzarmena sinatu du Aita Menni Ospitalearekin bi entitateen arteko kolaborazio sendotu eta formalizatzeko.*

*Aita Mennik euskal lurraldean barreiatuta dituen zentro ezberdinetako pertsona erabiltzaileak Nagusilanek antolatzen dituen ekimen ezberdinetan parte hartzen dute boluntario modura eta Nagusilaneko boluntarioek ere Aita Mennik antolatzen dituen ekimenetan lagundu eta parte hartzen dute. Orain, urte askoan zehar bi entitateen artean izan den kolaborazioa indartu eta erregulatzen da eta Aita Mennik duen zentro guztietara zabaltzen da.*



# Nagusilan ha participado en la Feria SAREGINEZ

El 4 de mayo se celebró la Feria SAREGINEZ en Bergara. Nagusilan también estuvo presente con la información sobre la Asociación y junto a los joteros animó la Feria.

Sareginez es una red integrada por entidades de Gipuzkoa. Todos los años celebramos 3 actividades principales: Una formativa, la feria del Voluntariado y el día 5 de diciembre, el día internacional del voluntariado. Sareginez se gestiona mediante Gizalde. También trabajamos con el resto de oficinas en Euskadi y Navarra: Más Voluntaria de Navarra, Bolunta de Bizkaia y Batekin de Araba.

# *Nagusilanek SAREGINEZ Boluntariotza azokan parte hartu du*

*Maiatzaren 4an Bergaran ospatu zen SAREGINEZ azoka. Nagusilan bertan izan zen Elkarteari buruzko informazio zabaltzen eta joteroekin batera Azoka alaitu zuen.*

*Sareginez, Gipuzkoako entitateek osatzen duten sarea da eta urtero 3 ekimen antolatzen dituzte: formakuntzari zuzendurikoa, Boluntariotza azoka eta abenduaren 5ean ospatzen den boluntariotzaren nazioarteko eguna. Sareginez Gizalderen bitartez kudeatzen da. Euskadi eta Nafarroako bulegoekin batera ere lan egiten dute: Nafarroako Orotan Lagun, Bizkaiko Bolunta eta Arabako Batekin.*

BATEKIN
Gizarte Partaidetza
Participación Social

bolunta

NAFARROA, OROTAN LAGUN
NAVARRA + VOLUNTARIA



# Nagusilan pone en marcha su nuevo proyecto "Nagusilan Ikasten" con la colaboración de Fundación Kutxa

Nagusilan, siguiendo su línea de renovación y desarrollo, ha iniciado un nuevo proyecto orientado a la formación de las personas mayores. "Nagusilan Ikasten" nace con el objetivo de fomentar la formación del voluntariado y mejorar la atención ofrecida a las personas mayores en situación de soledad no deseada.

Aunque el proyecto, financiado por la Fundación Kutxa, se presentará oficialmente en septiembre, ya ha comenzado a dar sus primeros pasos ofreciendo un amplio número de talleres y charlas en el conjunto de Gipuzkoa.

## Primeras charlas en Legazpia e Irún



El 5 de junio tuvo lugar la primera charla dentro de la iniciativa Nagusilan Ikasten, en el Salón de actos de la casa de cultura de Legazpia. Eva García, Psicóloga de Lahara Fundazioa ofreció la charla "El papel del voluntariado en la socidad actual" donde acudieron numerosas personas.

Unos días más tarde, el 10 de junio, fue el turno de Irún. En el Espacio Social Palmera Montero Adinekoentzako Gizarte Gunea, se congregaron las personas interesadas en atender la charla "Alternativas para afrontar la soledad", ofrecida por la ponente Izarne Lizaso, de Lahar Elkargoa.

## Cursos de verano de la UPV/EHU

Desde Nagusilan se ha ofrecido la posibilidad a todas las personas voluntarias de la Asociación la posibilidad de asistir a ciertos seminarios de los Cursos de verano de la UPV/EHU.

# *"Nagusilan Ikasten" Nagusilan elkartearen proiektu berria martxan jarri da Kutxa Fundazioaren laguntzarekin*

*Nagusilanek, orain arteko berrikuntza eta garapen ildoa jarraituz, pertsona helduen formakuntzara bideraturiko proiektua jarri du martxan. "Nagusilan Ikasten" boluntariotzaren formakuntza bultzatzeko eta desiatua ez den bakardade egoeran aurkitzen diren pertsonei eskainiriko laguntza hobetzean oinarritzen da.*

*Kutxa Fundazioak finantzaturiko proiektua irailean aurkeztuko den arren, bere lehen pausoak ematen hasi da dagoeneko Gipuzkoa mailan hainbat tailer eta hitzaldi eskainiz.*

## *Lehenengo hitzaldiak Legazpia eta Irunen*

*Ekainaren 5ean burutu zen Nagusilan Ikastenen barruan kokatzen den lehen hitzaldia, Legazpiko Kultur Etxearen Areto nagusian. Eva García, Lahar Fundazioko Psikologoak, "El papel del voluntariado en la sociedad actual" hitzaldia eskaini zuen eta pertsona dexente bertaratu ziren.*

*Egun batzuk beranduago, ekainaren 10ean, Irunen txanda izan zen. Palmera Montero Adinekoentzako Gizarte Gunean egin zen eta oraingo honetan, Izarne Lizaso, Lahar Elkargoko hizlaria izan zen hitzaldia eskaini zuena.*




## *UPV/EHU Uda ikastaroak*

*Elkartea osatzen duten pertsona boluntario guztiei UPV/EHUk antolatzen dituen Uda Ikastaroetan parte hartzeko aukera eskaini zaie.*

# Excursión de fin de curso a Leitza

# Kurtso amaierako txangoa Leitzara



El 6 de junio se realizó la excursión de final de curso al municipio navarro de Leitza. El tiempo acompañó, así como el ambiente festivo del grupo.

Como cada año, se ha elegido un enclave cercano, pero con mucho encanto. Iñaki Perurena, el conocido harrijasotzaile y actor vasco, hizo de anfitrión en su museo dedicado a la piedra. Atendió al grupo y dio todas las explicaciones oportunas sobre la temática del museo.

A continuación, llegó el turno de la visita al municipio de Leitza. Las personas voluntarias pudieron conocer la historia del pueblo y sus edificios emblemáticos, para después irnos a comer todos juntos.





*Ekainaren 6an Nafarroa iparraldeko Leitza herrira egin zen kurtso amaierako txangoa. Eguraldia lagun, giroa ere modu berekoa izan zen.*

*Urtero bezala, xarma handia duen eta gertu aurkitzen den leku bat aukeratu zen. Iñaki Perurena harrijasotzaile eta aktore euskaldun famatuak berak sorturiko harriari buruzko museoa erakutsi zieten boluntario guztiei. Taldea artatu eta museoaren gaiari buruzko azalpen guztiak eskaini zituen.*

*Jarraian, Leitza ezagutzeko txanda iritsi zen. Bertaratu ziren petsona boluntarioek herriari buruzko historia eta bertako eraikin garrantzitsuen informazioa jaso zuten. Ondoren, denak batera bazkaltzera joan ziren.*







# Proyectos intergeneracionales

**Trabajando con los centros escolares de La Salle Donostia e Ipintza de Bergara**

### Nagusilan Donostia junto con La Salle

Nagusilan Donostia ha estado inmersa en un proyecto intergeneracional con el Colegio La Salle de Donostia durante el curso 2018-2019. Llevaron a las y los alumnos a la Parte Vieja de la ciudad para enseñarles los lugares más emblemáticos y mostrarles su historia. Para finalizar, prepararon un aperitivo para conocerse mejor y estrechar relaciones. Asimismo, el coordinador de la Escuela La Salle de Donostia, Joxe Arizmendiarrieta, se reunió con las personas voluntarias de Nagusilan para reflexionar sobre la iniciativa intergeneracional llevada a cabo durante este curso. Tal y como expresó, el alumnado ha valorado de manera muy positiva y los resultados han sido mejores que los obtenidos en años anteriores. Sin duda, de cara al curso que viene, el objetivo es seguir con el proyecto.

### De Oñati a Bergara para ofrecer charlas

Rafa Cortabarria, voluntario de Nagusilan Oñati, ofreció una charla sobre el voluntariado y la calidad de vida de las personas ciegas a las y los estudiantes del instituto Ipintza de Bergara.

# Belaunaldiarteko proiektuak

***Donostiako La Salle eta Bergarako Ipintza Ikastetxeekin lanean***

### *Nagusilan Donostia La Salle ikastetxearekin batera*

*Nagusilan Donostia belaunaldiarteko proiektuan dago murgilduta 2018-2019 ikasturtean zehar La Salle Donostiako Ikastetxearekin. Donostiako Alde Zaharrera eraman zituzten ikasleak bertako txoko historikoak erakutsi eta azaltzera. Ondoren, otordu eder bat egin zuten gehiago ezagutu eta euren artean harremanak sendotzeko.*

*Ikasturte amaieran ikastetxeko koordinatzailea den Joxe Arizmediarrieta Nagusilaneko boluntarioekin bildu zen 2018-2019 honetan zehar aurrera eraman proiektuari buruz erreflexio bat egiteko. Berak esan bezala, ikasleek oso positiboki ikusi dute eta emaitzak beste urte batzuetakoak baino hobeagoak izan dira. Dudarik gabe, hurrengo ikasturtera begira, proiektuarekin jarraitzea dute helburu.*

### *Oñatitik Bergarara hitzaldiak eskainiz*

*Rafa Cortabarria, Nagusilan Oñatiko boluntarioak, hitzaldia eskaini zien Bergarako Ipintza institutuko ikasleei boluntariotzari eta itsuen bizi kalitateari buruz.*





# El coro de Nagusilan busca mujeres

El coro de Nagusilan BUSCA MUJERES: necesita sopranos y altos. Ensayan en los locales del Antiguo de Nagusilan y actúan en las residencias de mayores de Gipuzkoa, animando a todas aquellas personas mayores

**¡SI TE GUSTA CANTAR, VEN Y SÚMATE A NUESTRO VOLUNTARIADO DE ANIMACIÓN!**
**Ensayos: Miércoles de 17:00 a 20:00h.**

# Nagusilan abesbatza emakume bila dabil

Nagusilan abesbatza EMAKUME BILA dabil: sopranoak eta altoak behar ditu. Donostiako Antiguo auzoko lokalean egiten dira entseguak eta Gipuzkoa guztiko nagusien erresidentzietara mugitzen dira kontzertuak eskaintzera, bertakoak animatu eta alaitzera!

**ABESTEA GUSTUKO BALDIN BADUZU ETORRI ETA BAT EGIN GUREKIN!**
**Entseguak asteazkenetan 17:00 - 20:00**

# El grupo de teatro tiene nuevo Director, Paco Sagarzazu



# Antzerki taldeak zuzendari berria dauka, Paco Sagarzazu

Paco Sagarzazu, nacido en Donostia en el año 1940, cuenta con una dilatada experiencia en los escenarios. Ha participado en numerosas obras de teatro, cine y televisión. Ahora ocupa el puesto de Director de la compañía de teatro de Nagusilan.

Mediante estas líneas, agradecemos de todo corazón la labor realizada por Carmelo Moreno que, por motivos de salud, ha tenido que dejar la dirección.

*Paco Sagarzazu 1940. urtean jaio zen Donostian. Bide luzea du egina eszenatokietan: antzerki lan, zine eta telebistako obra eta programetan parte hartu du. Orain, Nagusilan antzerki taldeko zuzendaritza hartu du.*

*Lerro hauen bitartez, Carmelo Morenori orain arte egindako lana eskertu nahi diogu, osasun arazoengatik zuzendaritza utzi behar izan duena.*

# Homenaje en Ordizia y celebración del XX. Aniversario
# Ordizian omenaldia eta XX. urteurrenaren ospakizuna



Miguel Calvillo, histórico voluntario de Nagusilan Ordizia ha sido homenajeado en la Feria del Volunariado de Ordizia.

Además, el 26 de junio, Nagusilan Ordizia celebró su 20 aniversario. El acto tuvo lugar en el salón de actos del Hogar del Jubilado, donde se dieron cita representantes de diversas delegaciones de Nagusilan, representantes del Ayuntamiento y miembros de diversas asociaciones del municipio. Fue un acto con mucho contenido, donde las personas voluntarias fueron desgranando las labores que realizan en cada una de las áreas en las que se mueven. Asimismo, realizaron un llamamiento a los representantes del consistorio para dar respuesta a las diversas necesidades que ven a nivel municipal y comarcal. Finalizaron el encuentro con un lunch.




*Nagusilan Ordiziako boluntario historikoa den Miguel Calvillori omenaldi unkigarria egin zioten Ordiziako Boluntariotza Azokan.*

*Gainera, ekainaren 26an, Nagusilan Ordiziak 20. urteurrena ospatu zuen. Bertako Jubilatuen Elkarteko areto gelan Nagusilaneko beste delegazioetako kideak, Udaleko agintariak eta herriko elkarte ezberdinetako ordezkariak elkartu ziren. Ekitaldi mamitsua izan zen non boluntarioek banan-banan azaldu zituzten herri mailan egiten dituzten lan guztiak; bertaraturiko agintariei hainbat eskakizun egin zizkieten, bai herri mailan, baita eskualde mailan ere. Bukaeran, lunch bat eskaini zuten.*






## Homenaje en Zorroaga

La residencia Zorroaga homenajeó a las personas voluntarias que acuden allí, y cómo no, ¡también a los de Nagusilan!

## Omenaldia Zorroagan

*Zorroaga erresidentzian omenaldia egin zieten bertara joaten diren boluntarioei, eta nola ez, baita Nagusilanekoei ere!*



## Nagusilan Estella salida en la calle y comida

Las personas voluntarias de Nagusilan Estella han salido a la calle para dar a conocer la asociación y conseguir nuevos miembros. También realizaron una comida para consolidar su sentimiento de grupo y conocerse más entre ellos y ellas.



## Nagusilan Lizarra kalera atera da eta bazkaria egin du

*Nagusilan Lizarrako boluntarioak kalera atera dira elkartearen berri eman eta boluntario gehiago lortzeko. Horrez gain, boluntarioek bazkari eder bat egin dute beraien taldea sendotu eta elkarren artean gehiago ezagutzeko.*





## *Vuelta por Donostia con la iniciativa “En bici sin edad”*

En el año 2013 se creó en Dinarmarca la organización sin ánimo de lucro Ole Kassow para impulsar la iniciativa “En bici sin edad”.

Las personas voluntarias de Nagusilan participaron el 25 de junio en esta iniciativa dando una vuelta por Donostia de cara a conseguir los siguientes objetivos: mejorar la calidad de vida de las personas mayores, mejorar los vínculos intergeneracionales, construir relaciones contando historias y redescubrir Donostia en Triciclo. Las personas voluntarias y usuarios podrán participar en este proyecto.





## *Donostian barrena “Bizikletaz adinik ez” ekimanerakin*

*2013. urtean Ole Kassow Danimarkan sorturiko irabazi-asmorik gabeko erakundeak “Bizikletaz adiniz ez” ekimena jarri zuen martxan.*

*Gaur egun, munduko 200 hiri baino gehiagotan dago zabaldua, eta horietako bat Donostia da.*

*Nagusilaneko boluntarioak Donostian zehar atera ziren ekainaren 25ean ondorengo helburuak lortzeko: Adineko pertsonen bizitza-kalitatea hobetu, generazio ezberdinen arteko loturak sendotu, istorioak kontatuz erlazioak sortu eta triziklo gainean Donostia berrezagutu. Boluntario eta erabiltzaileek proiektu honetan parte hartu ahal izango dute.*



BIZIKLETAZ
ADINIK
EZ




## Nagusilan en el periódico Entremayores

El periódico Entremayores ha realizado una extensa entrevista a José Luis Elosua, Presidente de Nagusilan. Tal y como él apunta "es necesario que todas las personas mayores conozcan Nagusilan a través de su voluntariado."

## Nagusilan Entremayores egunkarian

*Entremayores egunkariak elkarrizketa zabala egin dio Jose Luis Elosua, Nagusilaneko Presidenteari. Berak dioen bezala, "beharrezkoa da adineko pertsona guztiek Nagusilan ezagutzea eta boluntariotzaren bitartez lagundu dezakegula jakitea."*

65YMÁS.COM

## La Federación Española de Nagusilan dentro del Consejo Asesor de "65 y más"

La Federación Española de Nagusilan se encuentra dentro del Consejo Asesor de la publicación "65 y más", dentro del "observatorio del Mayor".

## Nagusilanen Federazio Espainola "65 y más" Aldizkariaren Aholkularitza Kontseiluan

*Espainia mailako Nagusilan Federazioa "65 y más" Aldizkariaren Aholkularitza Kontseiluaren barruan kokatzen da, "Observatorio del mayor" atalean.*

nagusilan NOTIZIAK NOTICIAS

## "Nagusilan noticias" una realidad cada vez más palpable

La Asociación ha comenzado a utilizar por medio de la aplicación whatsapp un nuevo formato de noticias. Son muchas las personas voluntarias que no están familiarizadas con las redes sociales o el email, pero que sí utilizan la aplicación de mensajería instantánea, por esa razón y para que las noticias siempre lleguen a tiempo, la organización ha decidido poner esta práctica en marcha, que por ahora está dando muy buenos resultados.

## "Nagusilan notiziak" forma ona hartzen ari den komunikatzeko bidea

*Elkarteak whatsapp bitartez bidaliriko notizi formatu berri bat jarri du martxan. Asko dira sare sozialekin edo emailarekin konpontzen ez direnak, baina whatsappa bai erabiltzen dute euren egunerokotasunean. Arrazoi horregatik, eta notiziak beti garaiz iritsi daitezen, elkarteak momentuan iristen diren mezuen sistema martxan jartzea erabaki du eta oraingoz emaitzak oso positiboak izaten ari dira.*



## Nagusilan en el programa Crónicas de TVE2

## Nagusilan TVE 2ko Crónicas programan



El programa Crónicas de TVE2 ha emitido un monográfico sobre la soledad no deseada. A mediados de mayo estuvieron grabando en Nagusilan y ya lo han publicado. Las personas voluntarias mostraron su experiencia en iniciativas como el Hilo de Plata o las labores de acompañamiento y animación que realizan en residencias, como es el caso de Legazpia, o dando una vuelta por el municipio, como en Elgoibar. Asimismo, Enara Solabarria, Directora de Nagusilan, aportó la información necesaria sobre la Asociación.

*TVE2ko Crónicas programak desiatua ez den bakardadeari saio bat eskaini dio eta Nagusilan izan da aukeratua dokumentalean parte hartzeko. Maiatzaren erdialdean izan ziren grabaketak egiten eta dagoeneko publikatu dute lana! Bertan, Nagusilaneko boluntarioek euren esperientzia azaltzen dute: Zilarrezko Zenbakian parte hartzen dutenen testigantza eta Legazpi eta Elgoibarreko erresidentzia eta kaleko boluntariotzan eginiko grabaketak azaltzen dira. Enara Solabarria Zuzendariak Nagusilanen egiten denaren berri ere eman zuen.*











ver vídeo / bideoa ikusi

## Zambullidos en la iniciativa Surfrider

Personas voluntarias de Nagusilan Mutriku han participado en la limpieza de playas junto con los de la Asociación Surfrider. En septiembre volverán a realizar la acción.



## Adinekoen Iruditeri Surfrider ekimenean murgilduta

*Nagusilan Mutrikuko boluntarioak udako hondartzako garbiketan parte hartu dute Surfraide-koekin. Irailean berriro ekingo diote ekintzari.*




## Aprendiendo sobre la economía de plata

La agencia de desarrollo de Oarsoaldea ha lanzado la iniciativa “Oarsoaldea Zilar Ekonomia”. Miembros de Nagusilan han acudido a la reunión de presentación para conocer la iniciativa y realizar aportaciones.



## Zilar ekonomiari buruz ikasten

*Oarsoaldea Euskualdeko Garapen Agentziak “Oarsoaldea Zilar Ekonomia” ekimena abiarazi du eta Nagusilaneko ordezkaritza talde bat bileran izan da ekimenaren berri izan eta ekarpenak egin ahal izateko.*

## Asistencia al “Consejo Vasco de Voluntariado”

El pasado 27 de marzo, representantes de Nagusilan acudieron a la celebración de la primera reunión de 2019 del “Consejo Vasco de Voluntariado” del Gobierno Vasco. Unos días más tarde, el 10 de abril, se volvieron a reunir en la sede de Bolunta, en Bilbao, para elegir la comisión permanente y las diferentes comisiones de trabajo para los próximos 4 años. Ademgi, Secot, Kiribil Sarea y Cruz Roja fueron las entidades elegidas.




## “Boluntariotzaren Euskal Kontseilu”an parte hartzea

*Martxoaren 27an, Nagusilaneko ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren “Boluntariotzaren Euskal Kontseilua-ren” 2019ko lehen bileran parte hartu zuten. Ondoren, apirilaren 10ean, Bilboko Boluntan elkartu ziren hurrengo lau urteetako batzorde iraunkorra eta bestelako lan batzordeak aukeratzeko. Aukeraturiko entitateak Ademgi, Secot, Kiribil Sarea eta Gurutze Gorria izan ziren.*






## Congreso ICIC19

Un grupo de representantes de Nagusilan acudieron al congreso ICIC19 - 19TH INTERNATIONAL CONFERENCE ON INTEGRATED CARE organizado en el Kursaal.

Bajo el lema “Evaluar e implantar modelos de servicios integrados centrados en las personas”, el congreso ha contado con la colaboración de Osakidetza - Servicio Vasco de Salud, Bioef, Consejería de Sanidad del Gobierno Vasco, el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián y Diputación Foral de Gipuzkoa. La conferencia reunió a investigadores, médicos y gerentes de todo el mundo que se dedican al diseño y la prestación de servicios integrados de salud y asistencia social.

## ICIC19 kongresua

*Nagusilaneko ordezkari talde bat apirilaren 1etik 3ra Kursaalen antolaturiko ICIC19 – 19TH INTERNATIONAL CONFERENCE ON INTEGRATED CARE ekitaldian parte hartu zuten.*

*“Pertsonengan zentraturiko zerbitzu integralak ebaluatu eta ipini” izenburupean, kongresuan Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua, Bioef, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Donostiako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartu zuten. Hitzaldietan mundu guztiko ikertzaileak, medikuak eta enpresa zuzendariak bertaratu ziren beraien egunerokotasunean osasun eta gizarte asistentzian ibiltzen direnak.*





# ¡El día de tu boda, haz una donación a Nagusilan!

Es la segunda vez que una pareja realiza un donativo a Nagusilan el día de su boda. Nos parece una iniciativa preciosa, ya que nos enorgullece saber que creen en nuestra labor, y además, porque su ayuda le viene muy bien a la asociación para seguir realizando las labores de voluntariado junto a las personas que se encuentran en una situación de soledad no deseada.

Como agradecimiento, Nagusilan les preparó unas tarjetas especiales para repartirlas entre las personas invitadas. ¡Muchas gracias por vuestra generosa aportación!

# Zure ezkon egunean eman diru-laguntza Nagusilani!

*Bigarren aldia da bikote batek euren ezkon eguneko opari modura Nagusilani egindako diru-laguntza oparitzen dutela. Oso ekimen polita iruditzen zaigu, gure Elkarteak egiten duen lanean sinisten dutelako, eta gainera, euren laguntza oso ondo datorkiolako Nagusilani bakardade egoeran aurkitzen diren pertsonei laguntzen jarraitzeko.*

*Eskertza modura, Nagusilanek tarjeta berezi batzuk prestatu zizkien gonbidatuen artean banatzeko. Mila esker bihotzez egindako ekarpenagatik!*



# Nueva responsable del "Hilo de Plata" y "Nagusilan Ikasten"

Nagusilan cuenta con una nueva incorporación. Se trata de **Miryam López Ansorena**, licenciada en Antropología Social y Cultural. Ella será la nueva responsable del proyecto "Hilo de Plata" y de la recién comenzada "Nagusilan Ikasten".

# Arduradun berri "Zilarrezko Zenbakia" eta "Nagusilan Ikasten" proiektuetarako

*Nagusilanen pertsona berri bat daukagu, **Miryam López Ansorena**, Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatua. "Zilarrezko Zenbakia" eta "Nagusilan Ikasten" proiektuen arduraduna izango da.*






Para recibir la revista en online envíanos un correo a info@nagusilan.org indicando tu nombre, apellido y dirección de correo electrónico.

*Aldizkaria online jasotzeko idatziguzu info@nagusilan.org helbidera zure izen-abizenak eta helbide elektronikoa azaldu.*